

Kanibalismo ekonomikoari, stop!

Elkartasuna, konfiantza eta duintasuna, eguneroko bizitzan estimatzen ditugun baloreak dira. Horiek ekonomian islatzeko teoria sortu du Christian Felber austriarrak, eta Europan barrena dabil krisi garaiotan. Kapitalismo lehiakor basatiaren aurrean, jendeak, enpresek eta herriek elkar ulertzen hobeto funtzionatzen dutela dio Felberrek: “Oheratu gaitezke norbaiten kontra?”.

| URKO APAOLAZA AVILA |

GORPUTZA ERREGAIEZ BUSTI eta su eman zion bere buruari gizasemeak. 57 urte zituen, lau seme-alaba, eta 30 urte zeramatzan France Télécom enpresan lanean. 2011ko ekaineko hark, aurreko urteetako hamarnaka biktimen zerrenda loditu baino ez zuen egin. Alferrik izan zituen telefonia mugikorraren erraldoiak 3.895 milioi euroko irabaziak urte hartan, langile hark problema bat zuen.

Frantziako enpresa handietako suizidioen krisiak ondo baino hobeto erakusten du ongi-zatea eta etekin ekonomiko ez doazela eskutik helduta, korporazioen *clashflow* azkarrak ez duela batzuen onerako ekonomia baizik sortzen. Alemaniaren BPG tasaren gorakadak *minijobetan* dabilzan gazteen ezinak igartzten ez dituen gisan, edota BBVAren finantza balantze positiboak, etxetik bota duten hipotekatuaren negarrak entzuten ez dituen moduan.

“Arrakasta ekonomiko adierazle monetarioekin neurtzen da: diruarekin. Baina dirua ez da gai neurtzeko gizakiontzat eta ingurumenarentzat baliotsua den ezer”, dio Christian Felber ekonomialari austriarrak, sarean bolo-bolo dabilen bideoan. Felberren esanetan, gaurko ekonomiak lukurreria eta lehia ditu oinarri, baina jendearen arteko harremanetan beste balore batzuk onesten dira: konfiantza, zintotasuna, laguntasuna, solidaritatea... Horiek guztiak ekonomiaren arlora ekartzeko teoria proposatu du: guztien onerako ekonomia.

Alternatiba ekintzailetik sortua

Ez du ezer asmatu. Guztien onerako ekonomiak (GOE) jasotzen dituen eredu batzuk aspaldi aplikatzen dira zenbait mugimendutan, banku etikoa, ekonomia solidarioa edota bidezko merkataritza, kasu. Bestalde, historian

WINEANDWITS



Valentziako Muro d'Alcoïn Microvinya proiektua jarri dute martxan, bertoko mahastiak kudeaketa etikoarekin berreskuratzeko asmoz. Guztien onerako ekonomiarekin bat egin du udalerriak.



Ezkerrean, Christian Felber, guztien onerako ekonomiaren sortzailea; eskuinean, Valentziako Muro d'Alcoiko hitzaldi jendetsua.

barrena erregimen ugari baliatu eta murtxikatu dute “guztien onerako” hitza; konstituzio politiko askotan ere ageri da ideia. Duela mende parrasta Tomas Akinokoak berak *bonum commune* kontzeptua erabili zuen eta kris-

tau dotrinan aise zabaldu zen. Baina Felberren pentsamoldeak ezer gutxi dauka dotrinatik eta asko alternatiba ekintzaitetik.

Felber Salzburgen jaio zen 1972an. Vienan eta Madrilan egin zituen filologia eta zientzia politikoetako ikasketak eta egun, dantzari garaikide izateaz gain, Vienako unibertsitatean ekonomia irakasten du. Globalizazioarekin oso kritikoa, Attac-en sortzaileetako bat izan zen Austrian, eta mugimendu altermundialistaren bozeramaile da herri hartan.

2008an Felberrek ekonomiaren balore berrien inguruan idazkia publikatu zuen. Bertako ideiek txundituta, Attac mugimenduari loturiko hainbat enpresari elkartu ziren, ideiak praktikan nola jarri aztertzeko. Bi urteren ondoren, emaitza: *Gemeinwohl-Ökonomie* (Guztien onerako ekonomia) liburua.

2010eko urrian jarri zuten proiektua marx-txan, Vienan egindako sinposioan. GOEren teoriak hausnartzeko hamarnaka talde sortu ziren Austrian, Alemanian, Italia iparraldean eta Suitzan. Hortik urtebetera ehunka enpresaren eta erakunderen babesa zuten jadanik, eta horietatik 60 inguru “guztien onerako balantzeak” egiten hasi ziren.

Balantze hori da GOEren funtsetako bat. Taula batean enpresek jarraitu beharreko irizpideak daude ezarrita; guztira 17 irizpide nagusi dira: lan baldintza onak izatea, genero berdintasuna, produktuaren salmenta etikoa, kalte ekologikoak gutxitzea, langileen parte-hartzea, kudeaketa gardentasuna, soldaten arteko oreka... Irizpide bakoitzak puntu jakin batzuk ditu; 1.000 puntura iristen dena txapeldun litza ke eta 200era iristen ez denak baluke izerdirik botatzeko oraindik (ikusi eskuin orriko taulan).

Otsoa ala gizakia?

Hori oso ondo dago –esango dizu adi entzun dizun bazkaltiarak–, baina nola konbentzitu-

Neurri esanguratsuak

Banku demokratikoa: “Zeregin nagusia aurrezkiak bermatu eta tokiko enpresa eta familientzat kredituak ematea izango da. Diruak, kreditu itxuraz, ondasun publikoa izan behar du, eta finantza merkatuak itxi egin behar dira”.

Ondasun pribatua: “Eztabaidatu beharko litzateke jabetza pribatua mugatzeko gehieneko kopuruaz, esaterako 10 milioi euro. 10 milioirekin edonork ia edozein luxu izan dezake, baina gutxiegi da gobernu bat erosi ahal izateko”

Gehieneko soldata: “Soldata maximoak gutxieneko soldata baino hamar aldiz handiagoak ez izatea. Handizaleek gehiago irabazi nahi badute, posible dute, gutxieneko soldata igoaz”

Enpleguaren banaketa: “Ordu estrak kendu eta asteko lan orduak 30 edo 33ra jaitsi. Horrek denbora utziko luke lanaren beste alderdi batzuetarako: pertsonen zaintza, norbere lanak eta auzolana. Hamar urtean behin ‘urte sabatikoa’, oinarritzko errentak finantzatuta. Langabezia tasa %10 arinduko luke”.

Aztarna ekologikoa: “Hazkunde ekonomikoa jada ez da helburua, bai ordea aztarna ekologikoa gutxitzea. Bizimodua aukeratzeko dugun askatasuna amaitzen zaigu, beste batzuek bizitza duina izateko duten askatasuna mugatzen dugunean”.

Demokrazia zuzena: “Egiatzko demokrazian, herri burujabearen interesak eta bere ordezkariak, berberak dira. Demokrazia ordezkatzailerak osatu behar da demokrazia zuzen eta parte-hartzailearekin. Herritarrek euren ordezkariak zuzendu behar dituzte”.

Guztien onerako oinarrizko irizpideak

	Giza duintasuna	Elkartasuna	Ekologia jasangarria	Justizia soziala	Parte hartze demokratikoa eta gardentasuna
Hornidura	Eskaintza eta horniduraren kudeaketa etikoa				90
Finantzazioa	Finantzen kudeaketa etikoa				30
Langileak eta jabeak	Lanpostuaren kalitatea eta berdintasuna 90	Lan kargaren banaketa justua 50	Langileen jarrera ekologikoa sustatzea 30	Soldaten banaketa justua 60	Barne demokrazia eta gardentasuna 90
Bezeroak, produktuak, zerbitzuak, jabeakideak	Salmenta etikoa 50	Jabeakideekin elkartasuna 70	Produktuen eta zerbitzuen izaera ekologikoa 90	Produktuen eta zerbitzuen izaera soziala 30	Eredu sozial eta ekologikoak arloka handitzea 30
Gizarte arloa (eskualdea, burujabetza...)	Eragin soziala eta produktu/zerbitzuen esanahia 90	Guztien onari ekarpena 40	Kalte ekologikoak gutxitzea 70	Enpresan lan egiten ez duten jabeen etekin gutxiago banatzea 60	Gardentasun soziala eta erabakietan parte hartzea 30
Irizpide negatiboak	Giza eskubideak eta LNEren arauak haustea -200	Salmenta areriorsua -200	Ingurumenari eta ekosistemari kalte handiak -200	Emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasun ordaintzea -200	Partaidetza guztiak ez argitaratzea -200

ko duzu marrazoa arraiak ez jateko? *Homo homini lupus* dio latinezko esapideak (gizakia otsoa da gizakiarentzat) eta askok egungo kanibalismo ekonomikoa horrela justifikatzen dute, berekoitasuna espiral genetikoan bagenerama moduan.

Felberrek uste hori ipurdiz gora jartzen duten hainbat ikerketa ditu aipagai, tartean Joachim Bauer neurobiologoa-renak. Bauerren esanetan, Darwinen eboluzioaren teoria sortu zuenean, XIX. mendeko Ingalaterrako gizarte kapitalista islatu zuen, baina ezin da inolaz ere esan gizakiok genetikoki egoistak garenik. Alderantziz, ingurura egokitze bide onena kooperatzea dela dio Bauerrek, baita biologikoki ere. Antza, gizakiok elkar ulertzen dugunean, garunak estimulua nabaritzen du eta ondo sentiarazteko hormonen jarria hasten da.

Hitz gutxitan, enpresen artean lehiari aritu beharrean, elkarrekin kooperatzea litzateke gizarte osoaren ongizatea handitzeko modu natural eta eraginkorra.

Felberrek ez du ezer asmatu. Guztien onerako ekonomiak jasotzen dituen eredu batzuk aspaldi aplikatzen dira zenbait mugimendutan, banku etikoa, ekonomia solidarioa edota bidezko merkataritza, kasu

Hori lortzeko, GOEren errezetak ez du aparteko misteriorik: produktuetan etiketatu graduala (gorria, horia, berdea) sortuko lukete auditorien emaitzekin, erosleek enpresak saritu edo zigortu ditzaten; balantze onak lortzen dituzten enpresek hobariak edo laguntza publikoak jasoko lituzkete, kreditu merkeagoak, kontratazioetan eta ikerkuntza programetan lehentasuna... Gisa horretan, enpresaren helburua jada ez litzateke etekin ekonomikoko hutsa izango, guztien onerako jardura baidzik.

Esaldi hau idazten ari garen unean, 856 enpresak, 58 politikarik, 147 erakundek eta 2.877 lagunek eman diote babesari guztien onerako ekonomiaren mugimenduari. Horieta askok guztien onerako balantzea egina dute gainera, eta ez dira tamainaz eskasak inondik ere. Badaude aseguru etxeak, garagardo produktzaileak, bankuak, okindegiak, altzarigileak... Horieta askok ehunka langileri ematen diote beharra eta milaka bezero dituzte.

Egiptoko Sekem enpresan, esaterako, 1.850 langile ari dira. Nekazaritza biodinami-

VALENTÍN ZURBANO

GUZTIEN ONERAKO EKONOMIAREN BILBOKO KOORDINATZAILEA

«Probak egiten hasi gara zenbait erakunderekin»

Nola izan zenuen guztien onerako ekonomia-aren berri?

Baneraman denboratxo bat haren atzetik, batez ere Interneten Attac mugimenduaren orrialdeak eta bideoak segituz. Gero, Arizmendiartaren Lagunak elkarteak hitzaldi bat antolatu zuen eta Christian Felber etorri zen, hantxe egin genuen topo.

Zer nabarmenduko zenuke teoria honetatik?

Kontzeptuak jasotzen dituen ideiak ez daude soilik Felberren mugimenduan, lehenago ere landu izan dira, EHU adibidez, ekonomialari ugari ari dira horien inguruan lanean. Inportanteena da ikuspegia aldatzen duela: ekonomia lehiakortasunean eta norberarentzako etekinean oinarritzen da egun; aldiz, ikuspegi berriak kooperazioan eta guztion ongizatean egiten du azpimarra.

Nola ari zarete antolatzen?

Oraintxe bertan Bilboko taldean ari gara gehien mugitzen; Donostian ere badago beste talde bat, baina hasi-



V. ZURBANO UTZIA

berritan daude. Zehaztu nahian ari gara zein den bakoitzaren ikuspegia, oso jende ezberdina biltzen gara, arkitektoak, ingeniariak eta beste mugimendutan ere aritzen den jendea dago.

Pentsatu duzue nola hasi lanean Euskal Herrian?

Hainbat proba egin ditugu erakunde batzuekin, guztien onerako balantzeak dakartzan irizpideak ebaluatu ditugu elkarrekin. Beraiek deitu digute, bizpahiru orduz bildu gara hausnartzeko eta hasierako balorazio bat egiteko.


Etorkizunean aurreikusi duzue, esaterako, guztien onerako udalerririk sustatzea? Udalekin hitz egin duzue?

Ez da gure asmoa proselitismoa egitea. Interesa duen ororekin hitz egin nahi dugu. Austrian gertatu zena- ren antzeko zerbait da: hainbat enpresari elkartu ziren eztabaidatzeko eta hortik sortu zen mugimendua, baina hasierako ideia ez zen hori, Felberrek soilik liburu bat idatzi zuen. Gu bide beretik goaz.

koaren bidez basamortuari eta bertoko jendearen pobrezia aurre egiteko Ibrahim Abouleishek Sekem sortu zen, 1977an. Kooperatiba horretako enpresek baliabide ekologikoak erabiltzen dituzte zukuak, espezieak eta fito-botikak produzitzeko, besteak beste. Bidezko merkataritzan eta bazkideen parte hartzean ere urratsak egin dituzte; bertako etekinekin haurtzaindegiak eta jasangarritasuna zer den ikasteko unibertsitateak eraiki dituzte.

Espainiako Estatuko hainbat herrialdetan eta Hego Amerikan ere aski zabaldu da guztien onerako ideia, batez ere ekainean gaztelaniazko bertsioa publikatu zenetik (*La economía del bien común*). Babesleen artean Euskal Herriko dozena bat enpresa txikiren izenak azaltzen dira eta hausnarketa taldeak sortu dira –Bilbon eta Donostian talde bana (ikusi goiko koadroko elkarrizketa)–. Gaztelaniazko liburu horrek, hain justu, MCCren esperientzia dakar gogora, zenbait esparrutan guztien onerako ekonomiarekin bat egiten duelako.

“Mugimendua geldiezina da eta bera bakarrik ari da hazten” diote GOEren defendatzaileek. Zinez, egitasmoa, etiketatu eta pizgarri soil batzuk baino subertsiboagoa baita.



Christian Felberren liburuak best seller izan da Austrian eta Alemanian.

Merkatu ekonomiatik atera ez, baina hura iraultzeko neurriak jasotzen ditu. Azken batean, “herri subiranoak” konbentzio batean guztien onerako lege batzuk ezartzean iritsiko ginateke hogeitabira, halako “konstituzio ekonomiko” bat sortzean, alegia.

Piztia kapitalistak baina, azkar atera ditu atzaparrak, eta ez dira gutxi izan zenbait hedabidetan Felberren kontra jaurretako eztenak: anarkomarxista, nerabea, poto egindako ezkertiarra... Beste askorentzat, zumarrak garia ematea bezain erraza da ekonomia amesteko hori egia bihurtzea. Pauso handiegia. “Ipotxen pausotxoaren estrategia erabili behar dugu –dio austriarrak bere hitzaldietan–, egin dezagun ahal duguna. Ez gaitzen hasi Banco Santanderrekin, ezta Europar Batasunarekin ere. Has gaitzen Muro d’Alcoiko ekintzaileekin”.

Muro d’Alcoi, guztien onerako udalerririk

Mediterraneoak Valentzian ikusten dituen lehenengo mendien magalean sartuta, Muro d’Alcoi 9.000 biztanleko herri ezkertiar aberztalea da –Bloc Nacionalista Valencià irabazi ditu azkeneko lau udal hauteskundeak–. Bertan ondu da guztion onerako ekonomia- ren baitan koka litekeen esperimentu bat: Celler la Muntanya upeltegiko jabe Joan Cas-

cant-en ekimenez Microvinya ardoaren proiektua jarri zuten abian duela urte batzuk.

Filoxeraren gaitzak jo aurretik, inguru guztia mahastiz marraztua zegoen paraje haietan. Cascant eta bere bazkideak ardoa egiten hasi zirenean, abandonaturik zeuden mahasti sail txikien jabeengana jo zuten. Hala, helburu hirukoitza lortu dute: batetik, mahastiak lehenagoratu eta mahastizainen bizi-modua duintzea; bestetik, ardo arrakastatsua produzitzea toki-mahats barietateak erabiliz; eta azkenik, Muro d'Alcoiko gizarte eta kultur taldeak proiektuaren inguruan batzea.

Microvinya ardoa 28 minifundiotako mahatsarekin egiten da eta zigilu propioa du. Zigilupe horretan merkaturatutako ardoek baldintza batzuk bete behar dituzte: nekazariak egindako lanaren ordainetan irabaztea; mahatsa bertako mahastietatik lortzea eta ingurumenari kalterik ez egitea; upeltegia inguruan errota egotea; eta promozioa diseinatzea bertako herrien kultura errespetatuz.

Iraultza txiki bat ekarri du mahasti-zaintzaren ikuspegi berri horrek herrian. Hasi ziren mahastiak berreskuratzen eta bukatu dute urtero jasagarritasun jardunaldiak antolatzen,

dekrezimenduaz hitz egiten eta guztien onerako ekonomia babesten. Muro D'Alcoik guztien onerako udalerrri izendatu baitu bere burua.

Austrian, Bavieran, Hegoaldeko Tirolen eta Suitzan ere, hainbat udalerrri guztien onerako ekonomiaren partaide izango direla iragarri dute mugimenduaren webgune ofizialean. Gisa horretako udalerrri batek betekizun batzuk dauzka, horien artean, udal administrazio publikoan guztien onerako balantzea egitea eta neurriak hartzea azpikontratatzen dituen enpresek, eta udalerririko gainerako enpresek, balantze hori egin dezaten. Vienan, adibidez, aztertzen ari dira balantze hori eginga duten enpresek lehentasuna izatea udalak erosketak egiten dituenen.

Euskal Herrian baditugu zero zabor sortzearen aldeko udalerrriak, baita hurbileko komertzioa sustatzeko euskal monetaren proiektua ere, baditugu auzolanean bizi diren herriak, autogestionatzen diren auzoak, ekonomia sozialean eta kooperatiboen esperientzia handia duten eskualdeak... Zein izango da guztien onerako klubera animatzen lehena? ■

Esaldi hau idazten ari garenean, 856 enpresak, 58 politikarik, 147 erakundek eta 2.877 lagunek eman diote babesa guztien onerako ekonomiari



FINAL AURREKOA



B D G R

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa
2012

BASAURI

Azaroaren 18an,
domeka
17:30ean
Kiroldegia

www.bizkaikotxapelketa.biz

